

II.—Azkue jaunak bi lan talde irakurri dizkigu: bata *garkizunak*: bestea *Lamiñak*.

III.—Bähr jaunak Gipuzkoa'n bildu dituen euskal-itx ederak irakurri dizkigu. Gogoz entzun dizkiogu ta euskal-itx oren zerenda gure *Euskera*'n argitaratuko da.

IV.—Azkenez, Euskaltzaindiak adierazoko die euskaltzale ta euskal-idazleai utsean dala Euskaltzaindiko alki bat, Karmelo Etxegarai jauna il dalako, nai duenak edo diña danak eskatu dezan, ontan Euskaltzaindiaren araudia zeazkiro jaraiturik.

Ta beste gairik izan ez-ta otoitzez amaitu da batzaraldia.

---

### **Bilbo'n, Aldundi-Jauregian, 1925'ko Lotazila'ren 22'an.**

Euskaltzain abek bildu dira: Azkue, Urkijo, Eguskitza, Olabide, Intza, Lakonbe: euskaltzain-ordeko Oleaga ta Ormaetxea eta Odon Apraiz urgazlea.

Otoitzez asi da batzaraldia.

I.—*Santuen bizitza laburak* deitzen dan liburua azaldu dala-ta, Bilbo'ko Egunari batek liburu oretzaz eman duen iritxia zabaldu dan ezkerero, Euskaltzaindiak beñiz eta beñiz aitortzen du, ez dituela beretzat artzen, bere ikurpen gabe letozken euskal-liburuak. Euskaltzaindiak begi onez ikusi du liburu oren agerketeta ta bere sorospidea ere garaiz eman zion; bañan liburu oren idazkera, itz-beñi ta gañerakotzaz ez du Euskaltzaindiak ezer ikustekorik ta ez du oraindik iritxirik abotu.

II.—Azkue jaunak irakurri digu *The Basque Dialect of Marquine* Willian Rollo Escoziar jaunak egin-

dako lanarekiko bere aburua. Aburu onez, Azkue jaunak diona, auxe da: Rollo'ren lana, ederki mamitu, pikortu ta tankeratua dagola; Rollo berak dasa ez duela akets gabeko gauzarik azaltzen, ta egiaz abetatik batzuen-batzuek Azkue jaunak igafi dizkio; batez ere iru gai abetan: 1.º Vocablos no marquineses; 2.º Apreciaciones fonéticas; 3.º Exposición de afijos. Rollo jaunak bere lanaren azken-aldera dakazkien gayetatik bereziz aipatu du Azkue jaunak, *lamiai* dago-kiena noski Polifemonen izunkertik ateria.

Azkue jaunak bere lana bukatu duenean, beroni otu zayo, Rollo jauna Euskaltzaindiko urgazle izendatzea, orain gutxi dala il dan *Dogson* urgazle jaunaren ordeko. Euskaltzaindiak onetsi du. Azkue'ren idazkia *Revista Internacional*-en argitaratuko da.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzi-ta, ototzez amaitu da batzaraldia.

---

### Bilbo'n Aldundi-Jauregian, 1925'ko Lotazila'ren 23'an.

Batzafera euskaltzain jaun abek datoz: Azkue, Urkijo, Landeñetxe, Eguskitza, Olabide, Intza eta Lakonbe; euskaltzain-ordeko Oleaga eta Ormaetxea eta Manterola urgazlea.

I.—Manuel Lequona urgazle jaunak txosten eder bat biali digu Gazteiz'tik: Txosten onen idaz-burua auxe da: *Contribución al estudio de la Sintaxis euskérica*. Lan ortan euskera ta latiñaren antzordeak azaltzen ditu ta txostenlariak nai luke gai oni, toki berezi bat ematea, euskal-eliztían.

Lan au gure Euskera'n argitaratuko da.